

Donostia, 2019ko martxoak 29

IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, HIRIKO ETXEBIZITZA BABESTUARI BURUZKOA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikulua araberak, hurrengo MOZIO ARRUNTA aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDA dadin, hiriko etxebizitza babestuari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Hiriko etxebizitzaren alokairu eta erosketak prezioei dagokienez, Donostia Estatu osoko sailkapenaren buruan kokatzen da. Neurrigabeko prezioen ondorioz gazteek bizitzako proiektu bati ekiteko egiazko zailtasunak dituzte edo familia askok egiazko arazoak izaten dituzte alokairuaren edo hipotekaren hileko kuota ordaintzeko.

3/2015 Legeak, ekainaren 18koak, etxebizitzari buruzkoak, haren xede soziala finkatzen du. Horren ondorioz, eskumeneko administrazio guztiek helburu hori betetzeko beharrezkoak diren ekimenak abiarazi behar dituzte, izan ere, etxebizitza baterako sarbidea izatea ezinbestekoa da bizitza duin bat izateko.

Hiria etxegabetzerik gabeko hiri deklaratu izan bada ere, urte hauetan zehar etxegabetzeak gertatu dira.

Duela egun gutxi Stop Etxegabetzeak plataformaren eskutik azken kasua ezagutu genuen. Zorionez, alokairuko etxegabetze bat azken orduan geldiarazi zela iragarri zuten, Eusko Jaurlaritzak tasatutako etxebizitza batean. Baina familiaren egoera ezagutzearekin batera, etxegabetu egingo zuten familiak zein egoera bizi zuen jakitearekin batera jatorrian sustapen publikokoa izandako etxebizitza baten egiazko kudeatzaileak nor ziren jakin genuen. Familia horren bizileku den Benta Berriko ABEE elkarteak.

1998an Eusko Jaurlaritzak lurrazalaren eskubidea Metrovacesa eta Vallehermoso enpresek osatutako ABEE elkarteari laga zion 75 urterako, babes ofizialeko etxebizitza honen sustapena eraikitzeko. Eusko Jaurlaritzak egin zuen horien zozketa eta alokairuzko kontratuen baldintza tasatuak finkatu zituen: horien kuota eta berrikuspenak, iraupena eta luzapenak, bide batez, gogoratu, 2028. urtera arteko mugaeguna dutenak. Data horretatik aurrera jabedunak kuotak merkatuko prezioen arabera finkatu ahalko ditu.

Jabedunari dagokionez, Metrovacesa eta Testa Residencial socimi sozietatea fusionatu egin ziren. Azken horrek milaka etxebizitza kudeatzen ditu Estatu osoan. Duela hilabete gutxitik hona, 2018ko abenduaz geroztik, Blackstone da SOCIMI horretako inbertitzaile nagusia.

Blackstone da munduko funts putre handiena. Estatuan izandako krisialdiaren urteak baliatu ditu adreiluaren inperio bat altxatzeko, 22.000 etxebizitzarekin, bankatik etorritako aktibo toxikoak erosteari esker; baina baita etxebizitza publikotik eskuratuta ere. Horixe da Benta Berriren kasua.

Benta Berriko sustapenak, behin ezarritako epea amaituta, 2028an, alokairuko prezioak finkatu ahalko ditu merkatuaren arabera, etxebizitza babestu ziren eta prezio tasatuak zituzten etxebizitza batzuetan.

Benta Berriko ABEE elkartearen kasuaren harira, ezinbestekoa da urratsak ematea hirian urteen poderioz garatutako gainerako etxebizitza publikoaren errealitatea ezagutu eta etxebizitza babestuaren gaineko kontrol publikoaren galerak eta lurzorua pribatizazioak ekarritako egoera iraultze aldera. Derrigorrezkoa da etxebizitza ondare sozial modura bermatzea. Errealitate honen aurrean, aurkezten dugu hurrengo:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Donostian funts putreen eskuetan dagoen etxebizitza publikoko kopuruaren berri eman dezan.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari berma dezala Benta Berriko ABEE elkartearen formula berarekin etxebizitza publikoaren beste sustapenik ez dela errepikatuko, etxebizitza publikoaren nahiz lurzoru publikoaren pribatizazioa ekiditeko xedez.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Benta Berri ABEE elkartearen etxebizitza tasatuen gaineko kudeaketa zuzena berreskura dezan, eta baita antzeko egoeran egon daitezkeen gainerakoena ere, etxebizitzaren xede soziala bermatze aldera.

Sin: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.